

Literatura, ikuskizuna eta lehia agertokian

SOLARPLEXUS / CC-BY



Ezkerrean, slam poesia saio bateko ikuslea, puntuaketa ematen. Eskuinean, Saul Williams slam poeta eta kantaria.



RAFE BERON / CC-BY-NC-ND

Amerikako Estatu Batuak azken hamarkadetan munduko abangoardia bilakatu dira eremu ia guztietan, eta poesiaren baitan ere neurri batean halaxe izan dela esan daiteke. Slam mugimendu poetiko garaiakidea dateke horren adibide, AEBetan jaio eta garatu baita batik bat.

BEÑAT SARASOLA

ANTZEKO SAIOAK lehenago ere egin izan ziren arren –Ted Berrigan poeta handia tarteko–, kontua 1984. urtean hasi zen Chicago hirian, Marc Smith izeneko morroi batek jazz klub batean –Get Me High Lounge– lehenengo slam saioa antolatu zuenean. Orduetik modalitate hau beste lurralde eta hirietara zabaltzen joan da eta egun, New Yorkeko Nuyorican Poets Cafe hartzen da slam saioen tenplutzat. Saio hauek taberna edo klubetan antolatzen dira eta bertan poeten artean lehiatzen da. Partaide bakoitzak –taldeka ere egin daiteke– bere poemak errezitatzen ditu zehaztutako denbora tarte batean. Amaitu ondoren, ikusleen artetik aukeratzen diren epaimahaikideek euren kalifikazioa ematen dute –oro har, Oetik 10era–. Era horretan, askotarikoa izan daitekeen lehiaketa sistemaren bidez, emanaldiko txapelduna izendatzen du epaimahaiak azkenean. Slam saioen ezaugarri nagusiak, bada, hiru dira: errezitaldi publikoak dira; irekia da, edonork parte har dezakeelako, eta poeten artean lehiatu egiten da.

Errezitaldi publikoak izanik, ahozkitasunak eta *performance*-ak garrantzi handia hartzen dute. Poesia, funtsean, ekintza komunikatiboa dela azpimarratzen dute *slammer*-ek. Poemen soiltasunaz harago, errezitaldia bera da epaitzen dena eta honenbestez, sarritan poetek saio txundigarriak eskaintzen dituzte, antzezpenak egiteraino.

ATALAIA JATETXEA

Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun
Tel: 943 635518 • Faxa: 943 638718
e-posta: info@hotelatalaia.com
web orria: www.hotelatalaia.com

2007ko azaroaren 4a

Ez da harrizkoa errezi-tatzailea tabernetako barra gainean ikustea edota tabernatik kalera irtetea. Horrela, errezitatearen garrantzia delata, hip-hop mugimenduko zenbait artista slam mugimendura gerturatu dira, horien artean esan-guratsuen Saul Williams. Era berean, ikusleen inplikazioa ere handia izaten da. Entzuleek poeta xaxatu ohi dute, baita emanaldia bukatutakoan euren iritzia agerian utzi ere. Poetaren eta aurrean duen jendearen arteko harremana indartzeko, ohiko poeta-poeta ereduak gaindituz. Bestetik, emanaldi irekiak direnez, slamen jarraitzaileek literatura mota honen izaera demokratikoa azpimarratzen dute. Zirkuitu konbentzionaletik at geratzen diren poeta ugari emanaldi hauetan parte hartzeko aukera izaten dute.

Hala ere, slam saioetan ezagunak egin diren poeta ugari euren argitalpen konbentzionalak kaleratu izan dituzte gerora, eta slam poesiaren antologiak ere argitaratu dira honezkerok —*Aloud: Voices from the Newyorkian Poets Café* kasu—. Orobat, epaimahaikideak ikusleen artean aukeratzeko jite demokratiko hori areagotu egiten du, epaile eta entzuleak berdintzeraino ia. Sinbolikoki literatur balioaren agintaritzaren publikoaren eskuetan geratzen da, inongo botere instituzionaletik landa.

Lehiaketa, eztabaidarako arrazoi

Lehiaketa da eztabaida handiena eragiten duen aspektua seguruenik, baina lehiak poesiaren esparru tradizionaletik at zegoen jendea erakarri du emanaldi hauetara. Slam saioetan elkar-tzen den entzuleria heterogeneoa izaten da erabat; poesian erudituenak diren entzule kuxkuxeroetara. Zenbait kasutan bederen, saio hauen bidez poesiarenganako interesa zabaltzea lortu da.

Baina saio horiek euren aurkariak ere izan dituzte. Lehenik eta behin, mundu akademikoa. Marc Smithen asmoa, hain zuzen ere, akademiaren kontrako saiakera bat antolatzea zen, eredu kanonikotik kanpo geratzen zen poesia aldarrikatzea. Eta baita lortu ere. Akademiak urtetan bizkarra eman izan dio poesia slamei; Harold Bloom kritikari ospetsuak, esaterako, sarritan egin izan ditu mugimenduaren kontrako adierazpenak. Dena den, denborarekin esan daiteke poesia slamak literatur sisteman barneratu eta akademiaren onospena lortzen joan direla. Arestian aipatu argitalpen konben-



ADAM SCHWABE / CC-BY-NC-ND

Adierazkortasunak garrantzi handia du slam poesian, argazkian ikusten denez. Toronton (Kanada) egindako saio batean hartu zieten goiko argazkia Amanda Hiebert eta Krystle Mullin poetei.

har daitekeena, haatik, Poetry Slam Incorporated (PSI) delakoa izan daiteke. Erakunde honek, alde batetik, nazioarteko slam saio indartsuenak biltzen ditu eta bestetik, urtero AEBetako saio nazionala (National Poetry Slam) antolatzen du.

Mugimenduaren kontrakoek oro har bat egiten dute lehiaketaren ideia gaitzestean; ez deritzote onargarri poesiaren bidez lehiari ibiltzeari. Kritika honen kontra, Allam Wolf izeneko *slammer*-ak zera erantzun zuen: “The points are not the point; the point is poetry” (“Puntuak ez dira garrantzitsuena, poesia baizik”). 1990eko hamarkadan, Anti-slam izeneko beste mugimendu poetiko bat sortu zen Manhattanen Lower East Side inguruan. Collective: Unconscious izeneko artista taldeak antolatutako saio horietan, slam saioetan bezalaxe, poetek banan bana euren poemak errezitatzen dituzte eta ikusleen artean epaimahai bat antolatzen da. Kontua da, *slammer*-ak parodiatu nahian, epaimahaiaren puntuazioa beti izaten dela hamarrekoa.

Baina slamaren indar kritikoak hain zuzen

ere horixe uzten du agerian; hots, lehia literatura instituzionalean ere egon badagoela, modu ezkontuagotan agian, baina slam saio espontaneo eta jolastietan baino indar askoz handiagoz finean. Literatur zirkuitu instituzionalaren izaera lehiakorra azaleratzen du ironikoki, denik eta lehiaketa-modu arrunt eta zabarrera proposatuz. Gainera, garbizalekeria literario mota baten

hipokrisia salatzen du; poesia lehiarekin erkatzea eskandalagarria iruditu, baina literatur merkatuaren baitan jazotzen diren mekanismo lehiakorren —sariak, salmenta zerrendak, komunikabideak, bekak eta abar— kontra hitz erdirik egiten ez dutenen hipokrisia, hain zuzen ere. Besterik da, arestian aipatu lez, gerora slamaren inguruan sortutako zenbait jarduera eta proposamen konformista eta konbentzional —National Poetry Slama kasu—, lehenengo slam saioen indar kritiko eta iraultzailea neutralizatzen dutenak. ■

Slamen indar kritikoak agerian jartzen du literatura instituzionalean ere lehia egon, badagoela; modu ezkontuagotan agian, baina slam saioetan baino indar handiagoz